

# Ate Irekiko Jardunaldiak

2006/04/03

Mondragon Unibertsitateak **17 Jardunaldi Ireki** antolatu ditu aurtengo ikasturte akademikorako. Urtarriletik ekainera bitartean egingo dira dituen **best campusetan**.

Mondragon Unibertsitateak Arrasaten, Oñatin, Eskoriatzan, Ordizian eta Irunen dituen fakultateetako jardunaldi horiek **bi ordu** inguru iraungo.

Jardunaldi Irekiak datorren ikasturte akademikoan unibertsitate-ikasketak egiten hasiko diren **ikasleei** eta Mondragon Unibertsitatea zuzenean ezagutu nahi duten **guraso eta orientatzaileei** daude zuzenduta. Izan ere, fakultate bakoitzak bere ikastetxeetan ematen dituen titulazioak zehatz-mehatz azalduko ditu eta, era berean, gaiari buruz sortutako zalantzak argituko ditu.

## Helburuak

Hainbat helburu dituzte hizpide ditugun **jardunaldiak**:

- Batetik, Mondragon Unibertsitateko fakultateetako departamentu-buru eta irakasleekin **iritziak trukatzeko eta zalantzak argitzeko** aukera paregabea dira
- eta bestetik, gurera etorri eta jardunaldietan parte-hartze aktiboa izatea erabakitzen dutenek fakultate bakoitzaren **instalazio**, laborategi edo tailerrak bertatik bertara ezagutzeko aukera izango dute. Gainera, gure unibertsitatea egun garatzen ari den proiektuetako batzuk hurbiletik ezagutu ahal izango dituzte.

Jardunaldietan garrantzi berezia emango zaie **Mondragon Unibertsitatearen ezaugarri bereizgarriei**. Horrela, arreta berezia eskainiko zaie gure unibertsitatearen berezitasunei, besteak beste, enpresekin ditugun zuzeneko harremanei, ikasleei ikasketak eta lana bateratzeko eskaintzen diegun aukerari eta karrera-amaierako proiektuei. Hitz batean, ikasleen prestakuntza integralerako eta etorkizunerako interes handikoak diren alderdiei erreparatuko zaie.

